



Europar Batasuna
Unión Europea

araba  álava
foru aldundia diputación foral

EUOPAR BATASUNENKO ERAKUNDEAK ETA ORGANOAK



EUROPAR BATASUNEKO ERAKUNDEAK ETA ORGANOAK

Europar Batasuneko erakunde-esparrua bakarra da, eta erabakiak hartzeko sistema etengabe ari da garatzen.

Europako zazpi erakundeak, EBko zazpi organoak eta hogeita hamar agentzia deszentralizatu baino gehiago Batasun osora hedatzen dira. Guztiek elkarrekin lan egiten dute Batasunaren eta Europako herritarren interes erkideei heltzeko.

Erakunde horiek zeregin espezifikoak dituzte, hala nola legeak egitea eta Batasunaren politikak formulatzea, politika horiek aplikatzea eta arlo espezializatuetan lan egitea; tartean, hauetan: osasunean, medikuntzan, garraioan eta ingurumenean.

Erakundeek eta organoek lankidetzazabala dute EBko agentzia eta organoen sarearekin Europar Batasun osoan. Organo eta agentzia horien eginkizun nagusia da politikak errealitate bihurtzea.

EBko 60.000 bat bestelako enplegatuk 450 milioi europarren eta mundu osoko beste pertsona batzuen zerbitzura lan egiten dute.

Administrazioaren ikuspegitik, EBko beste hogeitahogeita hamar agentzia eta organok funtzio juridiko espezifikoak betetzen dituzte, eta erakunde arteko lau zerbitzuek erakundeek laguntza ematen diete.





ZEINTZUK DIRA EBKO ERAKUNDEAK?

Europar Batasuna **zazpi erakundek** osatzen dute. EBko estatu kideek eskumenak esleitzen dizkiete beren botereen partetik modu komunitarioan lan egiteko.

Alde batetik, Batasuneko administrazioa zuzentzen duten erabakiak hartzeko ardura duten lau erakunde nagusi daude:

- ★ Europako Parlamentua .
- ★ Kontseilu Europarra.
- ★ Europar Batasuneko Kontseilua.
- ★ Europako Batzordea.

Horiek EBri orientazio politikoa ematen diote kolektiboki, eta funtzio desberdinak betetzen dituzte legegintza-prozesuan. Gainera, bere lana beste hiru erakunderen lanarekin osatzen da. Hona hiru erakunde horiek:

- ★ Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.
- ★ Europako Banku Zentrala.
- ★ Europako Kontuen Auzitegia.

Europar Batasuneko alderdi judizialak, finantzarioak eta kanpo-auditoretzakoak kudeatzeaz arduratzen dira.

Ba al zenekien EBko erakundeen eskumenak, erantzukizunak eta prozedurak Batasunaren sortze-tratatuetan ezarri zirela?

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan (1957), Europar Batasunaren Tratatuan (1992) eta, berrienean, Lisboako Tratatuan (2007), hain zuzen ere.

EUROPAR BATASUNeko ERAKUNDEEN EGINKIZUNAK

1

Europako Parlamentua

EBko estatu etako herritarrak ordezkatzzen ditu, eta herritarrek aukeratzen dute zuzenean. Europako legeriari buruzko erabakiak hartzen ditu Europar Batasuneko Kontseiluarekin batera, eta Batasunaren aurrekontua onartzen du.

2

Kontseilu Europarra

EBko herrialde etako estatuburuak edo gobernuburuak biltzen ditu, Europar Batasunaren orientazio politiko orokorra eta lehentasunak zehazteko.

3

Europar Batasuneko Kontseilua

Estatu kideak ordezkatzzen ditu eta gobernu bakoitzeko ministroak biltzen ditu legeak onartzeko eta politikak koordinatzeko. Europako Parlamentuarekin batera, Europako legeriari buruzko erabakiak hartzen ditu.

4

Europako Batzordea

Batasunaren interes erkideak babesten ditu, eta bere «legegintza-ekimeneko eskubidea» erabiltzen du lege berriak proposatzeko.

5

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

Batasuneko Zuzenbidea betetzeaz arduratzen da, baita estatu kideek tratatuak behar bezala interpretatzen eta betetzen dituztela kontrolatzeaz ere.

6

Europako Banku Zentrala

Euroguneko prezioen egonkortasunari eusten dio, moneta-politikaz eta kanbio-tasaz arduratzen da eta EBko politika ekonomikoet laguntzen die.

7

Europako Kontuen Auzitegia

Batasunaren finantza-kudeaketa egokia hobetzen laguntzen du, kontu-ematea eta gardentasuna sustatzen ditu, eta Europako herritarren finantza-interesen zaintzaile independentea da.





ZEINTZUK DIRA ORGANOAK?

Erakundeez gain, **zenbait organok** Europar Batasunari bere eginkizunak betetzen laguntzeko **berariazko eginkizunak betetzen dituzte**.

Adibidez, organo batzuk erakundeei aholkuak emateaz arduratzen dira, eta beste batzuek EBko arauak eta prozedurak betetzen direla kontrolatzen dute.

- ★ Atzerri Ekintzako Zerbitzu Europarra.
- ★ Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea.
- ★ Europako Eskualdeen Batzordea.
- ★ Europako Inbertsio Bankua.
- ★ Europako Arartekoa.
- ★ Datuak Babesteko Ikuskatzaile Europarra.
- ★ Datuak Babesteko Batzorde Europarra.



EUROPAR BATASUNEN ORGANOEN EGINKIZUNAK

1

Atzerri Ekintzako Zerbitzu Europarra (AEZE)

Batasunaren zerbitzu diplomatikoa da. Kanpo-politika eta segurtasun erkidea koherenteago eta eraginkorrago egitea du helburu. Gainera, EBren ordezkartzen sare bat du mundu osoan.

2

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea (EEGK)

Organo aholku-emaile bat da. Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Batzordeak EEGKrengana jotzen dute gai politikoei buruzko erabakiak hartzen dituztenean. Gainera, Europa osoko gizarte zibileko zenbait alderdi interesdun ordezkartzen ditu.

3

Europako Eskualdeen Batzordea (EEB)

Eskualdeko eta tokiko agintariak ordezkartzen ditu. EEBren bidez, ordezkariak beren iritzia eman dezakete eskualdeei eta hiriei zuzenean eragiten dien EBko legeriari buruz.

4

Europako Inbertsio Bankua (EIB)

Europar Batasunean maileguak ematen dituen erakundea da. Bere jarduerak hauek dituzte ardatz: klima eta ingurumena, garapena, berrikuntza eta gaitasunak, enpresa txiki eta ertainak, azpiegitura eta kohesioa.

5

Europako Arartekoa

Organo independente eta inpartzial bat da. Kudeaketa ona sustatzen du, eta EBko erakundeek eta agentziek kontuak ematen dituzte bere aurrean. Europako herritarrei, enpresei eta EBrekin gatazkak dituzten erakundeei laguntzen die, administrazioari buruzko erreklamazioak ikertzen.

6


Datuak Babesteko Ikuskatzaile Europarra (DBIE)

EBko erakundeek eta organoek datu pertsonalak nola tratatzen dituzten gainbegiratzen du, intimitatea babesteko arauak betetzen direla bermatzeko.

7

Datuak Babesteko Batzorde Europarra (DBBE)

Europar Batasun osoan datuak babesteko arauak modu koherentean aplikatzen direla kontrolatzen du, eta estatu kideetako datuak babesteko agintari nazionalen arteko lankidetzaz sustatzen du.



Europar Batasuna
Unión Europea

araba  álava
foru aldundia diputación foral